

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
EUSKARA-ELKARTEEN AZPIBATZORDEAREN 4. BILERA
2017-06-27, ASTEARTEA, 12:30, IBAIONDOko Barrutiko Udalgia

Zehaztu nahi dugun arloa:

Zer egin ezagutza, erabilera eta motibazioa sustatzeko sektore zehatzetan (gurasoak, merkataria, langabetuak, etorkinak, gazteak...)?

Ekarpenak

BERBAIZU EUSKARA-ELKARTEA

1) "Zergatik ez?" tailerra antolatu merkataria, udal-langile eta kiroltako begirale eta entrenatzaileentzat. Tailer honen helburua da parte-hartzaileek gogoeta egitea beren eguneroko jarrera linguistikoaren eta jarrera horren eraginaren gainean. Ikastaroan, besteak beste, gai hauek lantzen dira: soziolinguistika, Euskal Herriko egoera linguistikoa, gure eguneroko hizkuntza-ohiturak, eta abar. Euskaraz ez dakitenentzat ere egiten da, gaztelaniaz (¿Compartimos?).

2) Kulturen trukeak egiteko ikastaroak antolatu etorkinak eta euskara hurbiltzeko. Helburua da euskaraz ez dakiten etorkinak sentsibilizatzea euskararen alde. Bilboko beste eragile batzuekin koordinatuta (euskaltegiak, eskolak, euskara-elkarteak), egin beharko litzateke eta etorkinek euskarazko oinarriko ezagutza lortzeaz gain, euren jatorrizko hizkuntzen inguruko oinarriko informazioa zabalduko genuke bilbotarren artean.

3) Oinarriko euskara-ikastaroak eskaini gurasoei eta merkatariei, motibazioa eta sentsibilizazioa handitzeko.

4) Bilboko euskalgintzak ordezkari handi goa izan Bilboko Aholku Batzordean. Aholku batzordean ordezkari egotea Bilboko euskaltegiak, euskara-elkarteak eta euskarazko hedabideak.

5) Merkataritzan Biribilko plana indartu. Deustualdean izan ezik, gainerako barrutietan ez dago modurik establezimendu euskaldunen berri izateko, eta horrek euskararen erabilera trabatzen du. Funtsezkoa litzateke Bilbao Dendak-ek eta auzoetako merkataria-elkarteek aktibo parte-hartzea. Getxo eredutzat hartu ahal da. Plana indartzeko neurri zehatz batzuk:

- Saltoki euskaldunak identifikatzen hasi, pegatina batekin.
- Bilboko saltoki euskaldunen zerrenda osatu.
- Hainbat euskarritan gizarteratu (Azkué Fundazioaren *Euskararen maparen* bidez app bat, Google maps...). (TOPAGUNEA): Horren ardura *Uriolak* izan dezake.
- Publizitate kanpaina bat eginez.
- Saltokien errotuluak, testu komertzialak, fakturak, merkealdi-iragarkiak... euskaraz edo ele bietan jartzeko laguntzak eman.
- Plan horren barruko dendariei sektorea dinamizatzeko laguntza eta aholkularitza lanak ere eskaini.

6) Umeen aisialdi publikoa eta espazio publikoetan eskaintzen den ekimen pribatuko aisialdia (haurrena zein publiko orokorrarena) arautu eta neurri eta baliabideak eskaini. Udal jabetzako edo espazio publiko guztietan garatzen diren dinamika, ospakizun, kirol-ekimen eta aisialdi-jardura guztietan hizkuntza irizpideak kontuan hartu eta ezarri. Adibide zehatz bat: BBK Live-k hizkuntza eskakizun batzuk bete beharko ditu, baita Euskalduna zubipeko Zona Verde ere.

7) Udalak euskararen ordenantza bat edo antzeko zerbait egin. Udaletik hiri osora zabalduko den euskararen normalizaziorako udal-arau, agindu, hitzarmen politiko edo akordio zabal bat eztabaidatu, egituratu, onartu eta egikaritu, Udalaren barne-sail, erakunde, eskuduntza eta langileetatik hasita hiri osora, euskalduntze prozesu erreal eta aktibo bat martxan jarriko duena.

TOPAGUNEA:

Komunikazioa

8) Euskaren agenda app-a

9A) Udalaren beraren esku dagoen komunikazioan euskara lehenetsi (bai Udalak berak sortutakoetan, baina baita Udal erakundeen kudeaketapean diren espazioetan ere: faroletako publizitatea, metroko panelak,...). Eta bestetik, hizkuntzen erabilera arautu eta enpresa pribatuei ere baldintzak jarri.

Formazioa

9B) Udalaren aisialdiko eskaintza osoa euskaraz izan behar da. Udalaren babespean dauden kiroldegiek, musika-eskolak, ludotekak eta gaztelekuek euskaraz funtzionatu behar dute. Langile guztiak euskaldunak izan behar dira (bai udal-langileak eta baita kontratatutakoak ere). Langile horiekin, euren hizkuntza portaerak duen garrantziaz ohartarazteko, motibazioa eta sentsibilizazioa lantzeko, formazio-saioak egin ("Zergatik ez?" edo "Hezitzaileak asko egin dezake"). **1) ekarpena**

10) Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten kirol-talde eta federazioei ere eskatu behar zaie haien kirol-jarduera eta komunikazio-ekintzetan euskarari gero eta presentzia/funtzio handiagoa eskaintzea, horretarako adierazleak eta neurgailuak ezarrita. Helburu horietara iristeko baliagarriak izan daitezke aipaturiko formazio/sentsibilizazio-tailerrak. Beraz, proposatzen dugu zerbitzu horiek esleitzeko baldintzetan, hezitzaileentzat hizkuntza-portaeretan aurrera egiteko formazioa derrigorrezkoa izatea, Gasteizko Udalak egiten duenaren ildotik, adibidez.

11) *Praktika onak* jardunaldiak antolatu Bilbon: Euskararen erabilera areagotzeko hainbat arlotan arrakastatsuak izan diren egitasmoak (aisialdian, merkataritzan, gazteak, familiak,..) lehen eskutik ezagutzeko eta hainbaten artean Bilbon har dezaketen forma eta egin dezaketen ekarpena lantzeko.

Motibazioa

12) Bilboko euskararen historia soziala ezagutarazi: euskaren inguruko aurreiritzi negatiboak ezabatu eta gazteak motibatuzeko, Aitor eta Pedro Zuberogoitia anaiek egin eta Bilboko Udalak argitaraturiko "BERTON BILBO" ikerketa-lanean bilduriko informazioa (historia, gertakariak, ekimenak, lekuak, datak, izen-abizenak,...) zabaldu (argitalpena zabaldu, ikus-entzunezkoa sortu, erakusketa bidez, hitzaldi bitartez, ibilbide gidatuak eta unitate didaktikoak).

Aktibazioa

13) Aktibazio-ekintza bat antolatu 2018an Bilboko euskaldunentzat: erabilera soziala areagotu eta hizkuntza-praktika berrien bidez hizkuntza ohituretan eragiteko. Egitasmo ugari jartzen ari dira martxan azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat herritan eta Euskal Herri osora zabaldu nahi da ekimena, elkarrekin egiteko. Herritarren hautuan oinarrituta aktibazio-ekimen horrek bigarren hanka bat ere badu: era guztietako entitate eta erakundeek hizkuntza praktika horiek erraztu eta babesteko neurriak hartzea. Bilbo erronka partekatu honen parte izan behar da, ekimenean parte hartuz eta Bilbon ahalik eta zabalkunde/hedapen handiena emanez.

Erabilera

14) BERBALAGUNA hedatu, indartu, eta erreferentzializatu, komunikazio eta koordinaziorako bitarteko gehiago ipiniz.

15) Gazte-lagun taldeentzako mintzapraktika egitasmo berezia martxan jarri (MINTZAKUADRILLAK), Getxo eta Donostian izandako esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta.

16) Gazte euskaltzaleen dinamikak indartzeko neurriak hartu: sakabanatuta eta sarritan bakartuta, baina antzeko helburu eta ikuspegiarekin ari diren dinamika horiek elkar ezagutzeko balio dezakeen GAZTE EUSKALTZALEEN TOPAKETA antolatu. Helburua da gazte-talde horiek identifikatzea eta elkar ezagutzea, aurrerantzean sor litezkeen bestelako elkarlan eta egitasmo partekatuen ezinbesteko oinarria izan dadin.

17) SORMEN ESKOLA arloanitzak martxan ipini Bilbon. Eskola horiek 15-18 urte bitartekoentzat dira eta berbazko kultur diziplinak (antzerkia, bertsoa, ikus-entzunezkoa, idazketa, musika, kantua) dituzte oinarri.

18) KUADRILLATEGI eta LarunBLAI programak martxan jarri, auzoka, 10-14 urte bitarteko gaztetxoek kuadrilla naturalak erreferente hartuta, gaztetxoek behar linguistikoak ase, hizkuntza portaeretan eragin eta erabilera naturala eta bizia elikatu ahal izateko.

19) FAMILIAN OLGETAN proiektua martxan jarri, auzoetan, 8 urtera arteko umeak dituzten familia euskaldunentzat, gurasoek seme-alabekin eta hauen presentzian beste helduekin euskaraz eta eremu informalean jolastu, sortu eta disfrutatzeko.

20) Eskola kalera eta kalea eskolara eraman. Eskola kalearekin harremanetan jarri behar dugu, oasi huts izatetik harantzago. Eskolak Bilboko euskaldunon espazio eta arnaguneak ezagutzeko ere baliatu behar dira. Euskaraz bizi den "Bilbo heldua" ezagutarazi behar diegu eskolan euskalduntzen diren haurrei.